


## Musker berria aurkitu dute Tenerifen

La metro-erdiko luzera du duela hilabete batzuk Tenerifeko labarretan aurkitu duten musker berriak. La Lagunako Unibertsitateko Efrain Hernandez zoologoa, irlako mendebaldeko Teno mazizoa zebilela, gorotzak topatu zituen eta musker normalarenak izateko handi samarrak iruditu zitzaizkion. Orduan helikopteroaren laguntzaz muskerra detektatu ahal izan zuten. Análisi genetikokoak egin ondoren, *Gallotia simonyi* muskerren azpiespezia dela argitu dute, hau da, Kanarietako El Hierro irlako musker erraldoiaren ahaidea da. *Gallotia* generoa Kanarietan baino ez dago eta bertan sortu dira eboluzioz genero horretako espezieak: Tenerifeko *Gallotia simonyi*, El Hierroko *Simonyi simonyi* eta Kanaria

Tenerifen aurkitu berri duten muskerak ia metro-erdiko luzera du eta El Hierro irlako musker erraldoiaren ahaidea da.



Handiko *Simonyi stehlinii*. 45 eta 75 zentimetro bitarteko luzera dute eta orojaleak dira.

Tenerifen *Gallotia simonyi* espeziea duela 500 urte inguru galdu zela uste zuten, baina usteak erdia ustel. Orain zenbat ale bizi diren, zenbat arrautza erruten dituzten, etab. ikertu nahi dute.

## Txontek ongi elikatutakoak nahiago dituzte

Australiako txonta marradun arrak ongi elikatutako emea nahiago izaten du normal elikatutakoa baino. Eskoziako Glasgow hirian egin dute hori erabakitze saiakuntza. Txonta-talde bateko emeak aparte hartu eta bi taldeetan banatu dituzte. Arrek ikusi ere egin gabe, lehen taldeko emeak normal elikatu dituzte. Artaxikia eman diete, eta beste ezer ere ez. Bigarren taldekoei ordea, artaxikiak gain proteina-gehigarria ere eman diete. Gehigarri horri esker kumeak indartsuagoak izaten dira.



Loto-lorea intsektu polinizatzaileak erakartzeko ezezik berotzeko ere egokia da. Lore barnean 30-35 °C-ko temperatura mantentzen du ernalketa garaian.

Bi aste igaro ondoren, talde bakoitzeko eme bana ipini dute arraren aurrean. Behin eta berri egin dute saiakuntza hori eta arrek hiru-tik bitan ongi elikatutako emea nahiago izan dute, nahiz eta pisuz eta itxuraz bi taldeetako emeak berdinak izan.

Animalia monogamoengan eta Australiako hegazi hauengan zereginak alderantziz betetzen dira, hau da, arra da (eta ez emea) bikotekidea aukeratzeko eta ondorengoak osasuntsuak izan daitezen zorrotz eta estu jokatzeko duena.

## Lotoa berogarria

Loto-lorea intsektu polinizatzaileak erakartzeko ezezik berotzeko ere egokia da. Australiako Adelaideko Unibertsitateko talde batek frogatu duenez, *Nelumbo nucifera* izeneko lotoak bere lore barnean 30-35 °C-ko temperatura mantentzen du.

Prozesua petaloak ireki baino bi egun lehenago hasten da. Ernaltzeko garaia gertu duelako, loreko temperatura egonkortu egiten da. Organo emea (pistiloa) prest

dagoenean, lorea zertxobait ireki egiten da. Orduan euli eta gainerako koleoptero txikiak etorri egiten dira tenperaturak erakarritu. Hantxe irauten dute preso lore-ganbaran lorezilak heltzen diren arte. Lore baten polenarekin heldu diren intsektuak, beste batenarekin abiatzen dira kanporantz. Orduan loreak bere denboraldi homeotermikoari amaiera ematen dio eta gero ihartu egiten da. Ernalketarako oso giro beroa mantendu ondoren, ohizko tenperaturara (hau da, giro-tenperaturara) itzultzen da.

## Zuntz optikozko belakia

tsaso hotzetan belakien eskeletoa aztertzen diharduten bi ikertzaile-talde italiarrek diotenez, Antartikako itsasoaren hondoan milaka zuntz optiko daude. Bi belaki-familia aztertu dituzte;



belakietako espikula edo silizezko eztenak batez ere. Hauek dozenaka zentimetro luzekoak izan daitezke 120 metroko sakoneran egoten den *Rossella racovitzæ* espeziearekin badira. Laser izpiekin egindako saiakuntzetan ikusi ahal izan denez, espikulek argia belakiaren gorputzeraino bikain eramaten dute. Gorputzean *Ostreobium* izeneko alga berde txikia belakiarekin sinbiosian bizi da, baina



Europako hogeita hamar herrialdeetako basoetan 600.000 zuhaitz baino gehiago ikertu ondoren atera dituzten ondorioak kezkarriak dira.

Itsaso hotzetan belakien eskeletoa aztertzen diharduten bi ikertzaile-talde italiarrek diotenez, Antartikako itsasoaren hondoa milaka zuntz optiko daude.



alga ezin da bizi eguneko argirik gabe, eta argi gehiago izan dezan, belakiak berak nolabaiteko eguzki-kaptadoreak ditu; espikulen muturrean kokaturiko gurutze-formako kozkor txiki batzuk, hain zuzen.

### Europako basoez kezkatuta

**E**uropako Batzordeak aginduta, Europako hogeita hamar herrialdeetako basoetan 600.000 zu-

hartz baino gehiago ikertu dira eta ondorio kezkarriak atera dituzte. Laurdenak baino gehiagok % 25ekoa baino hosto-galtze handiagoa du eta % 10ek hostoetako dekolorazioa % 10eko baino handiagoa. Beroak, airearen poluzioak, parasitoek eta abarrek arbola-mota guztiak kaltetu dituzte, hasi Mediterraneo aldeko haritzetatik eta Poloniako zuhaitz erretxinatsuetaraino. Berri on bakarra eman du aditzera txostenak: lurrian eta hostoetan egon ohi den sufre-kantitateak behera egin du.

### Polinesia Frantsesa ahotan

**1**998. urtean Frantziako gobernuak Polinesia Frantseseko agintarien esku utzi beharko ditu 1975. urteaz geroztik saio nu-

klearrak burutzeko erabili dituen azpiegiturak. Eta, noski, egoera onean bueltatu beharko litzuzke eremu horiek. Ezinezkoa izango da, ordea, Mururoan eta Fangataufa atoloietan sortutako kalteak bi urtetan berreskuratzetik ez baitago. Frantziako Armadako ikertzaileak ez dira iritzi berekoak. Bere esanetan, ez dago batere arriskurik, ez dago poluziorik eta artxipelago-ko segurtasun-baldintzak erabatekoak omen dira. 1960. urtean kontrolik gabe askatu zen material erradioaktiboa erabat kontrolaturik omen dago eta uhartearen egitura ez omen dago poluzio-aztarnarik. Omen, behin eta berriro. Izan ere, 1985. urtean jadanik arazo larria zen bi atoloi hauetako egoera. Jacques Cousteauk urte horretan burutu zuen ikerlanaren arabera, artxipelagoaren egitura iragazko-

rrak kalte larriak zituen, gehienak, bederen, saio nuklearrek eraginda. Eta geroztik, noski, kalte horiek ez dira konpondu.

Egoera nolakoa den benetan aztertzeko, beraz, Nazio Batuen Erakundeko Energia Nuklearrerako Agentziako ikertzaileak lanean hasiko dira aurki. Laginak aterako dituzte eta Frantziako ikertzaileek erabilitako materiala berraztertuko dute. Nolanahi ere, zaila izango da egoeraren definizio zehatza erdiestea; izan ere, saio nuklearrak eragindako kalteak ez dira berehala nozitzen eta, batez beste 30 urteko eragin-tartea behar izaten dute. 1975. urtean hasi zen Frantziako gobernuak Polinesia Frantseseko uharteetan saio nuklearrak egiten eta aurten bertan amaitu dira bere esperimentuak. Tarte horretan, 123 leherketa nuklear egin dituzte Mururoan eta zortzi Fangataufan.



1998. urtean Frantziako gobernuak Polinesia Frantseseko agintarien esku utzi beharko ditu 1975. urteaz geroztik saio nuklearrak burutzeko erabili dituen azpiegiturak. Baina zein egoeratan?

